

PLACIDO MUJICA PLAZA PARTZIALKI ESTALTZEKO IDEIAK AURKEZTEKO GONBIDAPENA

AURREKARIAK

2021eko lehen hiruhilekoan, herritarrei galdetu zaie zein parke edo plaza estali nahi luketen herrian. Horretarako, Udaleko teknikariek 7 aukera proposatzen zituzten, aldeaz aurretik azterketa bat egin ondoren, baina udalerrian zegoen beste edozein proposatzeko aukera zabalik uzten zen.

Jasotako 312 proposamen aztertu dira guztira, eta, horien artean, boto gehien lortu duen aukera (117 puntu) Placido Mujika plaza estaltzeko proposamena izan da.



Prozesu honen hurrengo urratsa ideia lehiaketa bat egitea izango da, Placido Mujika plaza partzialki estaltzeko.

Idea-lehiaketa horretan edozein arkitekto edo goi-mailako ingeniari elkargokidek aurkeztu ahal izango ditu bere proposamenak. Proposamenak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, Udalaren Egoitza Elektronikoaren bidez, eta dokumentu honetan ezarritako gutxienerako baldintzak bete beharko dituzte. Proposamenak aurkezteko epea Udalaren web orrian (www.urnieta.org) argitaratzen denetik 30 egun naturalera amaituko da.


Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Udalak epaimahai bat eratuko du, hiru teknikariz osatua. Horien artean, udal-arkitektoa egongo da, eta haiek aukeratuko dituzte hiru ideia egokienak, kalitate teknikoaren, kanpoko itxuraren, ingurunera egokitzearen, proposatutako materialen eta prezioaren arabera.

Urnietako Udalak lehiaketa honetan aukeratzen dituen 3 lanak herritarrei erakutsiko zaizkie, eta haiek aukeratuko dute, bozketa bidez, proposamen irabazlea. Ondorio horietarako, aurkezteak Udalari lagatzen dio bere ideiar buruzko jabetza intelektual edo industrialeko edozein eskubide, aipatutako erakusketa publikorako beharrezkoak direnak.

Proposamen irabazleari kontratu txiki bidez esleituko zaio Placido Mújica plaza partzialki estaltzeko proiekturako oinarizko proiektua eta exekuzio-proiektua idaztea. Lehiaketa honen esparruan ideia bat aurkezteak, nolana ere, aurreko baldintzak baldintzarik gabe onartzea dakar.

IDEIA LEHIAKETA

Esku-hartzearen gutxi gorabeherako perimetroa erantsitako planoan mugatzen da.



Obrak gauatzeko aurrekontua 200.000 eurokoa izango dela aurreikusten da.

Enkargua Placido Mújica plazaren proiektua gauatzeko oinarizko proiektua eta exekuzioakoa idaztean datza.

Helburua 630 m² inguru estaltzea da, dagoen hormigoizko harmailen zati bat barne, planoan adierazitako okupazioarekin.

Bete beharreko gutxieneko baldintza teknikoak eta baldintza formalen deskribapena:

- Estalkiak 630 m² inguruko eremua estali beharko du.
- Estalkia plazatik harmailen zati bat estaltzeraino zabalduko da.
- Grafiatutako okupazioa orientagarria da, eta pixka bat alda daiteke, betiere gehienezko perimetro horren barruan.
- Estalkiak estalki arintzat hartzeko ezaugarriak izan beharko ditu; hala, estaltzean erabili beharreko materialak ehunezkoak, teflonikoak, polikarbonatoak eta abar izan daitezke.
- Proposamenak zimenduak eta euskarri-egitura jaso beharko ditu. Azken hori metalezkoa, tiranteduna, zurezkoa eta abar izan daiteke.
- Estalkiak euri-urari dagokionez estankotasuna bermatu beharko dio azpiko eremuarekiko.
- Estalkiak eguneko argiztapena bermatu beharko du, barruan argiteriarik jarri behar izan gabe.
- Estalduraren eta egitura-sistemaren garaiera 6 eta 7 metro bitartekoa izango da, gutxi gorabehera, hau da, bizitegi-eraikinetako beheko solairuan dagoen espazio « itsuan », baina harmailaren goiko aldean gutxienez 3 metroko altuera libre izango du. Hala ere zonaka altuera desberdinak izan ditzake, betiere euriaren babesa bermatzen badu.
- Argiztapen-instalazioa egokitu beharko da.
- Egungo inguruko urbanizazioarekiko eragina aztertu beharko da, eta instalatu beharreko estalkia inguruarekin egokitu beharko da.
- Proposamenak kontuan hartu beharko du San Joan sua, zeina ekainaren 23ko gauean pizten den. Erantsitako planoan, agertzen da bere kokapena.
- Era berean, dagoen petanka-joko-zelaia errespetatu beharko da.
- Eraikuntzaren aurrekontua gehienez 200.000 €-koa izango da (gauzatze materialaren aurrekontua).
- Ez dago garajerik Placido Mugica plazaren azpian.

KONTRATUAREN AURREKONTUA.

Lehiaketaren irabazleari esleitu beharreko oinarrizko proiektua eta exekuzio-proiektua idazteko kontratu txikiaren balio zenbatetsia 14.990 eurokoa da, eta dagokion BEZa gehituko zaio.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Proposamenak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, Udalaren egoitza elektronikoen bidez:

- Din A-1 panel bat aurkeztuko da bertikalean, pdf formatuan. Bertan, eskalan, proposamenaren oinplanoak, sekzioak eta altxaerak agertuko dira, bai eta infografiak edo maketako argazkiak ere.
- Idatzizko dokumentazioa: hartutako irtenbidearen deskribapenarekin, azalaren laburpenarekin eta alderdi formalen, eraikitzaileen eta abarren justifikazioarekin, 2 DIN A4 Arial 10 tamainako letrarekin idatziak, pdf formatuan

EPEA

Proposamenak aurkezteko epea 30 egun naturaleko epean amaituko da, Urnietako Udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

GONBIDAPEN HONEKIN BATERA DOAN DOKUMENTAZIOA.

- Ingurunearen plano topografikoa.
- San Joan gaur pizteko behar den espazioa kokatzen duen plano.

